

LOIOLAKO INIGOREN IDAZKIAK: BERAUEN SORRERA ETA GIROA

0. Sarrera

Loiolako Inigotaz «klitxe» eta «estereotipo» batzuk (militar hutsa, maltzurkeriaz betea e.a.) oso hedaturik daude jende askoren artean. Inigori buruzko irudi «onak» ere ba dira, jakina.

Orri hauetan ez naiz Inigoren apologia egiten hasiko, irakurle. Bere idazkietara hurbiltzeko gonbiteaz konformatzen naiz. Izan ezazu gogoan Inigo Jainko-gizona izan dela, sinesmen handiko gizona alegia eta bai-eta bere burua gutxi bezain ongi ezagutu duen gizona ere. Sinesmena da, hain zuzen, ene eritziz, Inigorengana gerturatzeko eta bere bizitza ulertzeko giltzarri.

Hogei urte nituela «ezagutu» nuen gizon hau eta orduz geroztik berarenganako mirespena eta estimazioa handiagotuz joan da, etengabe, nire barnean.

Inigoren jaiotzaren 5. mendeurrena ospatzen ari garelarik, gizon haundi hau ezagutzeko aukera paregabea dugu. Horretarako bide egokiagorik ba al dago bere lanidatziak irakurtzea baino? Agian ustegabe ederrik hartuko dugu! Irakurtzen nondik hasi galdetuko bazenit, irakurle, «Erromesaren bidea» gomendatuko nizuke. Ondoren J.I. Telletxearenarekin («Loiolako Inazio. Bakarrik eta oinez») jarraitzeko esango nizuke eta hirugarrenik «Obras completas» delakoarekin osatzeko.

Ekin lanari, irakurle, ez zara-eta damutuko!¹

¹ Ohar pare bat, irakurle:

bat, aurrean duzun artikulutxo ez da aditu batek egina, jesulagun arrunt batek baizik. Bertan jaso ditudan ideia eta eritziak bibliografian agertzen diren luburuetan aurki ditzakezu; eta

bi, Inigo izena gorde eta erabili nahi izan dut lantxo honetan Loiolako seme ospetsuak bere gaztaroan zuen izena (Inigo) gehiago maite dudalako gerokoa (Inazio) baino.